

FORO ERREGULARRAREN BILERA: OGP KONPROMISOEN PROPOSAMENA

ARTIUM MUSEOA, VITORIA – GASTEIZ – 2016KO UZTAILAREN 13A

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko bileraren akta onartzea 2. Ekintza-planaren zirriborroa - Kontrastea 3. Hurrengo urratsak
Iraupena	16:00 - 19:00

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTARATUA
Eusko Jaurlaritzza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiko zuzendaria Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	César Rodríguez - Gardentasun eta Partaidetzako teknikaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Maitane Leizaola - Behatokiko zuzendari nagusia Jonatan Moreno – Behatokiko aholkularia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joseba Muxika - Herritarren partaidetzako zuzendaria	BAI
Bilboko Udala	Gotzone Zaldunbide - Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutiak Arloko zinegotzi eskuordetua	BAI
Donostiako Udala	Edorta Azpiazu - Lehendakartzako zuzendaria	BAI
Gasteizko Udala	Vale Tena - Alkatetzako aholkularia	BAI
Eudel	Roberto Cañon - Eudeleko antolaketako burua	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	BAI
	Alberto Ortiz de Zárate	EZ
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	EZ
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe - Burua	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen	BAI
Gasteizko kontzejuak	Miren Fernández de Landa	EZ
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - <i>proiektuaren arduradun teknikoa</i> Goizalde Atxutegi - <i>Innobasque-ko berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna</i>	

1. AURREKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

Foro Erregularrera bertaratzen diren pertsonen zerrenda jasotzeko modua aldatzeko proposatu da, titularra, ordezkoa edo biak datozen jasota gera dadin.

Idazkaritza teknikoak adierazi duenez, orain arte honela jaso izan da, ordezkaritza instituzionala jasota gera dadin, baina hurrengo aktetan aldatu egingo da, modu argiagoan jaso dadin nork parte hartu duen bileran.

Bileraren akta onartu egin da beraz, beste aldaketa edo iradokizunik gabe.

2. EKINTZA PLANAREN ZIRRIBORROAREN KONTRASTEAK

PLANAREN ZIRRIBORROKO EDUKIEN AURKEZPENA

Ekintza Planaren proposamenean jaso diren edukiei buruzko aurkezpen labur bat egin du idazkaritza teknikoak:

- Edukien egitura OGPrek beste plan batzuen antzekoa da. Sarearen parte diren tokiko beste gobernu batzuen planak aztertu dira, eta guztiak dute egitura antzekoa. Ondorioz, edukien egitura horri jarraitzea erabaki da.
- Proposatutako ekintza-planean honako eduki hauek jasotzen dira:
 - Sarrera: erakundearteko apustuari balioa ematea
 - Gobernantza-eredua eta egite-prozesua
 - Konpromisoak
 - Planaren hedapena
 - Planaren aurretiazko agiriak (diagnostikoa, proiektu nabarmenak, foro erregularreko auto-hautaketa prozesua...) ERANSKIN gisa sartu dira.

Konpromisoetan, Foro Irekia egin ondoren, batez ere honako hauekin lotutako ekarpenak sartu dira:

- Planaren hedapena – konpromisoaren edukiaz harago, ekarpenetako askok ezarpena aipatzen zuten.
- Konpromisoa garatzeko prozesua, prozesu / fase batzuk aldatuta (adibidez, Open data eta Linked dataren konpromisoan, prozesua koordinatuko duten erakundearteko talde tekniko bat sortzen hastea).
- Konpromisoen irismena – elementu berriak sartuz (adibidez, kontua-ematea Agenda 2030arekin lotzea) edo ikuspegia aldatuz (euskal integritate-eredua diseinatzea, oinarrizko printzipioak adostuz, eta hortik tresnak garatzea).

Era berean, Foro Irekian sarritan hitz egin da hizkuntza irisgarriaren gainean, eta, ondorioz, plana herritarren artean hedatzen laguntzeko elementuak (infografiak, bideoak eta abar) diseinatzea proposatu da.

FORO ERREGULARRAK EKINTZA-PLANAREN GAINEAN EGINDAKO EKARPENAK ETA IRUZKINAK

Ekintza Planaren irismena

Lehen ekintza-plan baten esparruan bost konpromisoak betetzea bideragarria ote den zalantzak daude, batez ere idazkuntzan eta anbizioan duen zehaztaper-mailagatik (erakundeen arteko adostasuna eraikitzea, herritarrekin batera sortzea eta abar).

Horrenbestez, nabarmendu denez, bost konpromisoak betetzeko modukoak dira eta izan behar dira, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

- Mailatan banatzeko eta apurka-apurka egiteko modukoak izan behar dira, erakunde bakoitzaren denborak eta egoera errespetatzeko.
- Herritarren eta erakundeen interesen arteko adostasunaren emaitza izan behar dira, eta aldez aurretik azterketak egin beharko dira, horien benetako bideragarritasuna eta interesa ezagutzeko.

Zalantza sortzen duten hainbat faktore daude (legealdiaren azken urtearen hurbiltasuna erakunde batzuentzat, konpromisoak jorratzeko bitartekoen hornidura, kontratu-harremanak formalizatzeko beharrezko epeak...), erakundeetan ere antzematen direnak, eta, horrenbestez, garrantzitsua izango da hedapen-prozesuan irtenbideak partekatze eta horiei elkarlanean aurre egiteko espazioak sortzea. Planaren azken helburua honako hau izan behar da: Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztientzat praktikoak izan daitezkeen tresnak, ereduak, estandarrak... osatzea eta adostasun-ereduak eraikitzea.

Nolanahi ere, zalantzazko edo ziurtasunik gabeko egoera horrek ez du planaren garapena oztopatu behar. Herritarren ikuspegitik, zaila da ulertzea erakundeek dauzkaten bitartekoekin eta ekipoeekin, inplikazioa eta konpromisoa baldin badaude, bost konpromisoak ezin diren garatu, lidergotza partekatuan oinarrituta. Badakigu lehen plan bat dela, eta, beraz, kontuan hartu beharko direla erritmo desberdinak, eta, beharrezkoa izanez gero, asmoak apaldu beharko direla. Baina ezin da garatu konpromisorik ezartzen ez duen konpromisorik: sortu diren itzaropenak egokitu egin daitezke, baina ezin dute huts egin.

Lidergotza eta konpromiso instituzionala

Konpromiso bakoitzaren lidergotzatik harago (zeinaren arabera konpromiso zehatza “bultzatu” behar den, hedatzen dela bermatzeko), beharrezkoa da erakunde bakoitzak konpromisoetako bakoitzaren emaitzekiko konpromisoa hartzea (horietan ekarpen zuzena eduki nahiz ez). Erakunde batzuek konpromiso batzuetan presentzia izatearen alde egin dute apustu, eta beste batzuek, aldiz, ezin dute halakorik berengain hartu. Lidergotzaren eta zuzeneko ekarpenen banaketa honela geratu da azkenean:

KONPROMISOA	LIDERGOA	ZUZENKO EKARPENA
1) Kontuak ematea agintaldiko planen bidez	Eusko Jaurlaritza	Bizkaiko Foru Aldundia Gasteizko Udala Donostiako Udala Bilboko Udala
2) Open data Euskadi eta Linked Open data	Eusko Jaurlaritza Bizkaiko Foru Aldundia	Donostiako Udala Bilboko Udala
3) Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin	Eusko Jaurlaritza Innobasque Gipuzkoako Foru Aldundia	Bilboko Udala

4) Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola	Gasteizko Udala Arabako Foru Aldundia	Bilboko Udala Innobasque
5) Integritatearen euskal sistema	Gipuzkoako Foru Aldundia	Arabako Foru Aldundia Donostiako Udala Bilboko Udala

Erakunde-mailan, kezka piztu dutenak honako hauek dira: zelan egingo den konpromisoen jarraipena, horien zehaztapen-maila ezagutu ahal izateko; zelan hartuko den kontuan erakunde bakoitzaren garapen-maila; eta zein marjina emango zaion erakunde bakoitzari hura ezartzeko. Beraz, berriz ere azpimarratzen da plana eskalatan banatu eta apurka-apurka ezartzeko modukoa izan behar dela, eta oinarriak eta irizpideak ezartzearen alde egin behar dela.

Herritarren ikuspegitik, lidergotza banatuaren zioz zereginak banatzen amaituko ote den da sortzen den arduraren. Erronka ez da bost konpromisoak garatzea, baizik eta ikustea nola garen gai elkarlanean egiteko aurrera konpromiso guztien bidean. Planak, izan ere, ikasteko eta lankidetzan aritzeko balio behar die erakunde guztiei; ez soilik indargunereren bat edo interes zehatzen bat duten alderdiak garatzeko.

Faseak betetzea eta planaren jarraipena egitea

Planaren emaitzen gainean sortu den itxaropenak eragiten du lehen kezka: ikasteko itxaropena da, edo probatu beharreko pilotu eta proiektuaren itxaropena (prozesua edo emaitza).

Argitu denez, idazkaritza teknikoak plana idatzi duenean, proiektuak kudeatzeko metodologia azkarra aplikatu du, eta, beraz, plana hedatzean ikaskuntza-prozesua jorratu nahi da, fase bakoitzak izango dituen emaitzak baino gehiago. OGPK fitxak eskatzen ditu konpromiso bakoitzerako, egutegiaren arabera ezarri diren faseak eta entregagaiak barne, baina planaren ezaugarriak kontuan hartuta (erakundeen artean ezarritakoa plana da), OGPren kanpoko ebaluazioaz harago, garrantzitsuagoa da elkarlanean aritzea eta herritarren eta erakundeen erritmoak egokitzen ikastea, adostasunak sortuz.

Zalantza orokor horrez gain, erakunde batzuk kezkatuta agertu dira plana idazteko hiru elementuren gainean, plana benetan betetzen dela baldintzatu baitezakete edo erakundeei arazoak sortu hura hedatzeko orduan:

- Pilotuen zehaztapena ilab-en eta, zehazki, gizarte-zerbitzuekin lotutako pilotua
 - Proposamen hau ilab-en balizko proiektu bat da, eta gizarte zibilaren eskutik jaso zen konpromiso-proposamen baten zioz sortu zen.
 - Ilab-en diseinuan bertan, pilotu guztietarako bideragarritasun instituzionala eta herritarren interesa aztertzeko prozesu bat gara dadila planteatu da. Adibide gisa agertzen dena ez da zertan izan pilotu bat izango dena, baina plana elkarlanean sortzeko prozesuaren esparruan ezin da baztertu herritarren proposamen bat, aurretik horren gaineko balorazioa egin eta jasota utzi gabe (zergatik ez den bideragarria azaldu behar da).
 - Edonola ere, planaren idazkuntza aldatu egingo da, argi gera dadin ilab-en proiektu pilotuak herritarren eta erakundeen interesekoak izan behar direla eta horietako batzuek egitateak jorratuko dituztela (egitate partaidetu berritzailea / eraldatzailea) eta beste batzuek, aldiz, nolakotasunak (metodologia, tresna edo bide berritzailea / eraldatzailea).

- Azkenik, nabarmendu denez, ilab-en proiektu pilotuen helburua ez da erakunde guztiek praktika horiek aplikatu eta bere egin ditzatela. Erakunde guztien konpromisoa da, hain zuzen ere, praktika-erkidego baten parte izatea eta ikasteko eta probatzen diren metodologia desberdinak kontuan hartzeko irekita egotea (eta eremu horretan bertan edo beste eremu batean aplikatu ahal izatea).
- Pilotuak egiteko lekuen zehaztapena, Open Eskolaren kasua aipatuta, Vitoria – Gasteizen ezartzeko proposatu dena.
 - Kontrako ekarpenik jasotzen ez bada, eta zuhurtzia-irizpideari jarraikiz, proiektuak garatuko dituzten udalerriak / espazioak ez zehazteko irizpidea ezarri da. Eraginkortasunez hedatu daitezkeen baldintza egokienak betetzen diren tokian garatuko dira.
- Faseen / emaitzen egutegia ezartzea:
 - Kontratu-prozedura luzea eragin dezakeen kontratazioaren bat eragin dezaketenak. Zaila da alde zuzenetik jakitea zeintzuk izango diren kontratatu beharreko zereginak, eta zeintzuek eragin dezaketen kontratu txiki baten zenbatekoa baino altuagoa den zenbatekorik. Konpromisoen liderrak diren erakundeek kontuan har dezakete elementu hori, egokitzen jotzen badute, beren faseen egutegiak berrikustean.
 - Jarraipenean dagoeneko maiztasuna ezarri duten jarraipen-mekanismoen egutegia ezartzeko modua egokitu dadila baloratzea (hilekoa, hiruhilekoa, sei hilean behingoa...), baldin eta aldaketa horrek ez badu konpromiso txikiagorik eragiten (proiektuaren garapenerako eta jarraipenaren justifikazioetarako marjina utzita).

Faseen azken idazketan, epe bat irekiko da, azken idazketa egokitzeko ekarpenak egin daitezkeen. Gogorarazi denez, helburua zera da, erakundeak, plana ezartzeko arduradunak direnez, eroso sentitu daitezela harekin, baina, era berean, nolabaiteko deserosotasuna egotea, plana estimuluak eragiteko eta ikasteko baliagarria izan dadila nahi baldin badugu. Administrazio bakoitza izango da planaren emaitzen eskumen-eremuan hura ezartzeko azken arduraduna. Plana eskalaz eskala eta apurka-apurka ezarri dadin bilatzen da, administrazio guztiak inplikaturik, baina, nola ez, kontuan hartu behar da bakoitzak bere eskumenak eta egitekoak dituela. Ondorioz, arrazoiren baten ondorioz lerroren bat garatuko ez balitz, berariaz azaldu beharko litzateke zergatik ez den halakorik egin.

Foro erregularra: funtzioak eta partaidetza

Planean jasotako konpromisoen ezaugarriak kontuan hartuta, Eudelek Foro Erregularrean parte hartzeak duen garrantzia azpimarratu da, baina baita talde sustatzailean parte hartzearen garrantzia ere. Beraz, berriz ere azaldu da Eudelek bi foroetan parte hartzeko gonbidapena jaso duela, eta, azkenean, Foro Erregularrean parte hartuko zuela zehaztu zuela, nahiz eta ez den bileretara joaten ari. Berriz ere jarriko gara harremanetan Eudelekin, bere partaidetzaren garrantzia azpimarratzeko.

Azkenik, idazkaritza teknikoak argitu duenez, Foro Erregularrak ez dauka konpromisoak ezartzeko erantzukizunik; aitzitik, ikuspegi kritikoa emateko erantzukizuna dauka, plana modu eraginkor eta parte-hartzezkoan gara dadin.

HARTUTAKO ERABAKIAK

- Ekarpinak egiteko epea uztailaren 20ra arte irekitzea, bai foro erregularrean, bai foro irekian, planaren helburuak eta prozesuak behar bezala zehatz daitezzen.
 - Konpromisoetan irismena edo anbizioa aldatzen ez duten ekarpinak zuzenean sartuko dira planera.
 - Adostasunen bat behar dutenak, Foro Erregularrera bidaliko dira, gaiaren gaineko iritzia eskatzeko.
- Plana idatzitakoan, irakurketa errazeko agiri batean egingo da lan, konpromiso-taldeetan eta foro irekietan erabili ahal izateko.
- Eudelekin berriz ere jarri beharko da harremanetan, bere partaidetza beharrezkoa dela gogorarazteko.

3. HURRENGO URRATSAK

PLANA HEDATZEKO HURRENGO URRATSAK

Plana abuztuaren 31 baino lehen bidali behar da OGPrak. Ekarpinak sartutakoan, euskarara eta ingelesera itzuliko da (OGPra bidaltzeko).

Irailean, erakundeek:

- Konpromiso-taldeak eratu beharko dituzte:
 - Parte hartzeko gonbidapen irekia
 - Konpromiso bakoitzeko lider instituzionalek parte hartzeko gonbidapena (ikuspegi instituzionala, aditua eta herritarra)
 - Autoantolaketa: talde 1/ talde handi 1 eta beste operatibo bat... interesaren arabera
 - FUNTZIOAK: zereginen planifikazioa, kanpoko baliabideen beharrianen identifikazioa, kontu-ematea foro erregularrean eta foro irekian
- Zereginerako giza baliabideak eta bitarteko materialak esleituko dituzte:
 - Barrukoak
 - Kanpokoak (lehen kontratazioen hasiera)

Urrian, bigarren astean, foro erregularraren bilera deituko da:

- Konpromisoen egoeraren lehen jarraipena (konpromiso-taldeak eratzea eta lehen urratsak ematea)

GALDERAK

- Zein izango da foro erregularraren funtzioa hemendik aurrera?

Konpromisoak hedatzean foro erregularra ez egoteak kezka pizten du. Hau da, ardura dago ez ote den bihurtuko foro bat, haren partaidetzarik ez dagoen beste espazio batzuetan jazotzen den prozesu bat baliozkotzeko helburu hutsa duena. Prozesua beste erakunde batzuetara ireki arren, foroko elkarte eta pertsonen partaidetza egon dadila eskatu da, baldin eta beharrezkoa bada konpromiso-taldeei sektore-ikuspegi bat ematea. Hala, pertsona horiek izango dira (hots, foro erregularreko partaideak), horietan parte hartuko duten edo ez baloratuko dutenak.

Era berean, foro erregularrak honako zereginak izango ditu:

- Planaren garapena ikuskatzea. Hiru hilean behin gutxienez (OGP irizpidea), foro erregularrak bost konpromisoen hedapenaren egoera zein den jakin beharko du.

- Plana garatzeko orduan partaidetza askotarikoa izan dadin laguntzea, eta, horretarako, partaidetzarako tresnak jarri eta sareen sare bat sortzea.
- Prozesua eta haren irisgarritasuna zaintzea, eta, horretarako, konpromiso-taldean lanaren jarraipena egitea.
- Idazkaritza tekniko bakarra edukiko al da konpromisoak hedatzeko?

Idazkaritza teknikoak erakunde lider bakoitzak egokitu ahal izango dituen ereduak edo txantiloak emango ditu, eta OGP metodologia baliatuz plana hedatzen dela bermatzeko irizpideei eta irismenari buruzko zalantzak argituko dira. Baina ez da idazkaritza teknikoaren lanik egingo konpromiso bakoitzerako (deialdiak bidaltzea, agiri teknikoak idaztea eta abar). Konpromiso-lider bakoitzak bitarteko egokiak bermatu beharko ditu, konpromisoa era egokian heda dadin.

- Bateragarria al da foro erregularrean parte hartzea eta, era berean, konpromisoak hedatzeko orduan zerbitzuak ematea?

Aurretik talde sustatzailean eztabaidatu den eta adostasunik lortu ez duen gaia da hori. Alde batetik, OGPK partaidetza bikoitz hori baimentzen du, baldin eta alde aurretik berariaz azaldu bada plana garatzeko zerbitzuak eskaini ahal izateko interesa. Bestalde, OGPren estandarrak urratsen ez diren arren, uste da ez dela egokia aldi berean prozesuaren arte eta parte izatea.

Elementu horrek eragina izan dezakeenez adituek / profesionalak foro erregularrean edo konpromiso-taldeetan duten partaidetzan, gaia talde sustatzailearen bileran berriz ere azter dadila erabaki da. Aurretik, balorazio juridikoa eskatuko da (Gipuzkoako Foru Aldundiari kontsulta egin dakiola eskatu da, eta hala nahi duten erakundeek ere egin ahalko dute), eta talde sustatzailearen bileran landuko da ea, kautela horiek betez, zilegi den ala ez lankidetz-formulak diseinatzea, administrazio-prozedurak errespetatuz eta etika publikotik abiatuz lankidetz-esparruak garatu ahal izateko hornitzaileekin, planaren garapenean inplikazio garrantzitsua izan badezakete, baina bere partaidetza horren zioz mugatuta badute (aukeratu behar izatea ea hornitzaile izango diren, edo interesik gabe parte hartuko duten).